



Zoom in

“Txotx” irabazlea, sagardotegi bateko kondaira tragikomikoa

Aurkezturiko lanen maila onak, antolateta serioak eta ikusleen partaidetza nabarmenak, oso arrakastatsu egin dute abenduaren 26tik 28ra bitartean buruturiko Irungo II. Zine eta Bideo Gaztea Lehiaketa.

Duela bost urtetik hona, urtero izan dugu Irunen erakustaldi berezi baten barnean laburmetraia frexkoenak ikusteko aukera. Hasieran xume eta txikiak ziren proiektaturiko lan gehienak, zaletuek asteburuetan eta lagunekin egindako laburrak izaten ziren, baina bestalde, proiektzio bitxi horiek gero eta jende gehiago erakarri izan dute Amaia aretora, gero eta animatuagoak bihurtuz erakustaldiaren urtetik urterako edizioak. Interesa areagotu egin da ekintza bera iaiztik aurrera lehiaketa bihurtzea erabaki zenez geroztik.

Estatu osoko bazter ezberdinetatik lan pila jaso dute antolatzaileek aurten, eta zerrenda luze bate-tik, 23 interesgarrien eta kalitatezkoenak aukeratu dituzte, horiek bi sail ezberdinetan banatuz; zine saila 12 laburrek osatu dute, eta bideoarena berriz, hamaikak.

Euskaraz filmaturiko lan baten meritua

Hilaren 28an ekin zitzaion sari banaketari, eta Inuzenteen Eguna izanda ere, erraz sinetsi zuen ikuslegoak hiru egunetan zehar proiektaturiko hainbat laburren artean giro euskalduneko “Txotx” interesgarri eta umore beltzekoa zela epaimahaiaren uste-tan sari nagusia merezi zuena. Bai eta gustura hartu honen erabakia ere! “Txotx”ek duen interes eta meritua, argumentuan eta

errealizazio txukunean ezezik, euskal filma izan, euskal musikaz eta bertako janari ohikoez apainduta egoteaz gain euskaraz filmatu izanean datza nagusiki. Izan ere, halako lanek erakusten baitute, hain zuzen, Euskal Herrian eta euskaraz ere badela ekoizteko aukera, teknikari eta aktore onak dauz-kagula bertan, eta etxeko istorioak gustukoak gerta daitezkeela hemendik kanporako ikusleentzat ere. Telmo Esnalek eta Asier Altunak elkarrekin zuzendu duten lan polit honek, Iruna etorri aurretik, izu-garrizko harrera ona izan zuen Palentziako Aguilar de Campooko zinemaldian, sari nagusia jasoz. Bilbon ere, euskal labor onenaren saria jaso berri du.



Pako Sagarzazuk gorpuzten du rol nagusia “Txotx” sarituan

Kupelen gelan bildutako bezeroen parean eta baserrian bertan bizi den sendiaren aurrean kamera jarriz, ederki islatzen du “Txotx”ek sagardotegi arrunt bateko giroa. Zenbaitetan dokumental baten antzera filmaturiko irudiak fikziozko istorio makabro samarrarekin txukun nahasten du bertan ere.

Bideo saileko lanen maila izugarri igo da

Kalitatearen aldetik igoera nabarmena igarri da aurtengo Bideo Sailean parte hartu duten zinten artean. Sevillako Alberto Rodriguezen “Bancos” edo “Banketxeak” adibidez, irabazle gertatu dena, ederki eta zuzen errealizaturiko labor bitxia da, eta teknikoki nahikoa landuta dago hasieratik. Banketxeak atrakatzeko baldintzak, aukera eta modu ezberdinak aztertzen ditu Alex O’Dogherty aktoreak antzezturiko Arturo protagonistak bertan.

Zo Ane Muñoz

H O T E L
* * *

URDANIBIA

HOTEL TRYP
★ ★ ★

Jaizubia Hiribidea, s/n • ☎: Apdo. Correos, 61
☎ : (943) 63 04 40 • Fax: (943) 63 04 10
20080 IRUN (Gipuzkoa)